

## 2023/2024 ikasturterako matrikulazio-kanpaina

Jakinarazi nahi dizuegu **otsailaren 13tik 24ra** (biak barne) izango dela **2023-2024 ikasturterako 3 eta 16 urte bitarteko ikasle berriak aurre-matrikulatzeko epea**. [Informazio gehiago...](#)



## Inauterietako egitaraua

10:30ean: **HHko dantza saioa** Mikel Laboa plazan

11:00etan: **DBHko eta LHko desfilea** kaleetan zehar

11:45ean: **DBHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

15:00etan: **LHko dantza ikuskizuna** kiroldegian

Ikusleentzako oharra:

Kiroldegiko zelaiaren kanpo aldetik sartuko dira ikusleak.

DBHko ikuskizunerako sarrera librea izango da, arratsaldeko LHko ikuskizunerako, aldiz, LHko ikasle bakoitzari, ikastolan bertan txartel bana eman zaio eta soberan geratu diren txartelak eskatu dituzuenok, 9:00etatik 12:30ak bitarte idazkaritzan jaso ahal izango dituzue.



## Inauteri-jaiak

Gogorarazi nahi dugu inauteriak direla-eta, **Ikastolan** datorren **astelehena eta astearte** (otsailak 20 eta 21), **jai egunak** izango direla, baina **Haur Eskola irekita** egongo dela.



## Ikasleekin pantailen erabilera egokia - lanketa deskargua

Hitz Aho guraso eskolak, Udarregi ikastolarekin eta Usurbilgo udalarekin batera, Miren Ros gonbidatu du, pantailen erabilera egokiaren inguruan hausnartzera.



Ikasturte honetan, LH5eko, LH6ko eta DBH1eko ikasleek formakuntza jaso ostean, Mirenek geletan ikasleekin landutakoa azalduko digu gurasooi eta talde eragilearen berri jasoko da. Azkenik, maiatzean, interesatu orok kezka plazaratzeko eta lantzeko aukera izango du.

### **Datak:**

- **LH5eko** ikasleen formakuntza: **martxoak 27**
- **LH6ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 28**
- **DBH1ko** ikasleen formakuntza: **martxoak 6**
- **Gurasoekin: Apirilak 25, 17:30tan, Udarregi Ikastolako jangelan.**
- **Bilera irekia:** Gurasoak, irakasleak, hezitzaileak, teknikariak, interesatu oro: **maiatzak 2, 17:00tan, Potxoenean.** Gonbidatuak, Zarauzko guraso taldea: Gure aukera, guk 16.

Mugi gaitezen, batu gaitezen!

## Eskola Kirola: LH 5-6 multikirola aztergai

Denbora bat bada hainbat tokitatik kezka bat jaso izan duguna Usurbilen dugun multikirol ibilbidearen inguruan. Landu berri dugun Plan Estrategikoan ere, gai hori landu beharra jasota geratu zen beste neurri batzuekin batera. Horregatik, hausnarketa ireki nahi dugu ereduaren birformulazioa bideratzeko.



Komunitate guztiaren parte-hartzea garrantzitsua izango da: hezitzaileak, kirol elkarteak, gurasoak zein ikasleak. Horretarako hainbat hitzordu eta parte hartzeko modu aurreikusi ditugu eta parte hartzera animatzen zaituztegu.

**Otsailak 22** -- Usurbilgo errealitatea, indarguneak eta ahulguneak lan-saioa

**Martxoak 15** -- Proposamen konkretuen lanketa lan-saioa

**OHARRAK:** Saio guztiak, **Potxoenean** izango dira arratsaldeko **18:30ean**.

Bestalde, LH 5-6ko ikasleen ikuspuntua galdetegi baten bitartez jasotzea aurreikusita dago.

# HAUR HEZKUNTZA

## Inauteriak 3-6 urte

Gaur goizean 10:30ean inauteri-festa ospatuko dugu Mikel Laboa plazan. Haurrak goizean zakua eta galtzerdi-abarkak oinetan jantzita etorriko dira gelara. Eguerdian, haurrak ikastolan bertan jasoko dituzue, beti bezala.

**OHARRA:** Arratsaldean ere haurrak zakua jantzita bidali, gure inauteri eguna 16:30ean bukatzen baita.



## HH4 eta HH5 BILERA PEDAGOGIKOAK

**Otsailaren 28an, asteartea, 16:45ean HH4 eta HH5eko** familiei zuzendutako bilera pedagogikoak egingo ditugu. Bilera horiek ondo antolatzeko, izena eman behar duzue ondorengo loturetan. Bilerak, zuen seme/alaben gelan izango dira. **Izena emateko azkeneko eguna otsailak 23 da.**



[HH4 IZEN EMATEA](#)

[HH5 IZEN EMATEA](#)

## Haur Eskolako idazkaritzaren berrantolaketa

Udarregi ikastolako idazkaritzaren berrantolaketa berria egiten ari gara eta idazkaritza osotasunean (**0-16 urte**) eraikin gorrian (Gernika, 11) zentralizatuko da datorren asteleheneetik aurrera. Beraz, idazkaritzarekin harremanetan jartzeko, deitu 943 361216 telefonora edo [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidera bidali mezua.



# LEHEN HEZKUNTZA

## Irteera

Datorren ostirala, otsailak 24, **LH 2. mailako** ikasleak **Kutxaespaziora** egingo dugu irteera egun osorako.



## Material-kobrantza

**2022/23** ikasturteko **LH-ko eskola-materiala gaur** kobratuko dela jakinarazten dugu.

Erreziboaren zenbatekoa **35,00 €-koa** izango da.



## Irteeren kobrantza

**GAUR LH4, 5. eta 6. mailako** ikasleek **Txuri-Urdinera** egindako irteeraren kostua kontu korrante bidez kobratuko dela jakinarazten dugu.

Hemen xehetasunak:

- Autobusa: 4,30 €
- Sarrera: 4,50 €
- **Guztira: 8,80 €**



**LH2. mailako** ikasleek Ikasturte amaieran Oriora egin behar dugun lotarako irteeraren lehenengo zatiaren kobrantza abenduaren 23an egingo zela jakinarazi zen, baina ez zenez gauzatu, **GAUR** kobratuko dela jakinarazten dugu. Aurrerakina **20 euro** izango dira.

## 4. Mailako familientzat oharra

LH4. Mailako ikasleek Ebaluazio Diagnostikoa egin beharko dute Eusko Jaurlaritzak data finkatzen duenean. Ebaluazio Diagnostikoa ikasleen maila zehazteko froga bat da eta Eusko Jaurlaritzak egiten die ikastetxe guztietako ikasleei. [Informazio gehiago...](#)



**EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA**  
evaluación diagnóstica

# DBH

## Chromebookaren erabilera-eskubideen kobrantza

Jakinarazi nahi dizuegu, adostu bezala, **gaur**, Chromebookaren erabilera-eskubidea kobratuko zaizuela.

- o DBH 3. maila: 22 €
- o DBH 4. maila: 20 €



## Ordutegia

Gogorarazi nahi dugu DBH-ko ikasleek **gaur, ostirala, 12:30ean** bukatzen dutela beraien eskola ordutegia.



## 2. Mailako familientzat oharra

LH4. Mailako ikasleek Ebaluazio Diagnostikoa egin beharko dute Eusko Jaurlaritzak data finkatzen duenean. Ebaluazio Diagnostikoa ikasleen maila zehazteko froga bat da eta Eusko Jaurlaritzak egiten die ikastetxe guztietako ikasleei. [Informazio gehiago...](#)

